

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezero berriak erakartzeko gure aplikaziora sare sozialetaz baliatuko gara, baita ere telebistaren bitartez, kaletik propaganda emanaz eta gertutasuna erakutsiz gure bezeroekiko... gure irudia eta gure burua ezagutaraztearen bitartez gure aplikazioaren erabilera sustatuko dugu.

Gure bezeroek gure aplikazioan harpidetza izatea beharrezkoa izango da bertan parte hartzeko eta aplikazioaren sozietatearen parte izateko. Bezeroak mantentzeko gure aplikazioan, bezeroek dauzkaten proposamenak aplikazioa hobetzeko kontuan hartzen saiatuko gara eta behin eta berriro egongo gara aplikazioan hobekuntzak egiten, hau da, bezeroen aldetik proposamenak jasoko ditugu eta behin analizatuta kontuan izango ditugu gure aplikazioaren bertsiorik onena emateko eta bezeroak pozik mantendu ahal izateko. Beraz, eskaintzen ditugun zerbitzuen kalitatea etengabe optimizatuz bezeroek guk eskeindutako zerbitzuak aukeratuko dituzte gure aurkarien zerbitzuen gainetik.

Gure harreman mota harreman automatizatua izango da. Harreman pertsonal bat simulatuz prozesuak automatizatzea da.

Zerbitzu pertsoanlizatuarekin baita izango da gure harremanen parte, bezeroen zalantzak argitzeko bezeroen arretareko zerbitzua eskainduko dugulako eta bezeroen zalantzak eta aplikazioaren erabilerari buruzko galderak argitzeko atal bat izango dugu aplikazio barruan.